



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

ENKARTERRIETAKO MUSEOA –BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK

Enkarterrietako Museoak Barakaldoko historiari buruzko erakusketa inauguratuko dau gaur

Bilbo, 2009ko ekainaren 30a. Abellanedako Enkarterritako Museoak —Bizkaiko Batzar Nagusia da— gaur arratsaldean inauguratuko dau “*Barakaldo. Egileen begirada - Barakaldo a través de sus autores*” izeneko erakusketea, herri langile horren ibilbide historikoa eskainiz. Erakusketea datorren urteko urtarrilaren 10era arte egongo da zabalik eta erakusgai izango dira osagai etnografikoak, kuadrak, marrazkiak eta Ezkerraldeko herri horretan aurkitutako, asmatutako edo egindako pieza esanguratsuak.

Erakusketearen ardatza Txeru García Izagirre jaunaren “Barakaldori buruzko Bibliografia” lana izango da, non jasorik agertzen diran Barakaldori buruz historian zehar idatzitako lanen aintamenak, eleizate horrek mendeetan zehar, aldi historiko guztietan, izaniko ibilbidearen erakusgarri.

Erakusketa horren helburua da guztiak jakitun egotea Barakaldok badauela iragan industrialaz haraindiko historiari be. Erakusketeak bestelako herri bat erakutsiko deusku, industriako beharginena ezeze artista, asmatzaile, arkitekto edo soldaduaena be izan dan herria nonbait.

Erakusgai dagozan piezen bitartez jakitera emon gura da zenbaterainoko ugaritasuna izan dan Barakaldon sortutako asmakizunetan edo barakaldotarren sormenari esker sortutako gauzetan. Horren adibidetzat bisitariak, beste gauza batzuen artean, ikusi ahal izango dabez Barakaldoko Lube marka mitikoko motozikleta bazuk, barakaldotar batek asmatu eban zine-proiektore bat, edo Burtzeñako Termikako kontrolerako tresnak.

Bisitariak aukerea izango dabe ibilbide historikoa egiteko zenbait erakusgaireren bitartez: osagai etnografikoak, Burtzeñako merzedarioen komentuko hondarrak, industriagaz lotutako kuadrak, eraikin ospetsuen marrazki eta planoak, Barakaldoko eleizetako piezak, antxinako dokumentuak eta herriko artistek egindako kuadru, eskultura eta argazkiak. Bisitarien atseginerako be “El Mayorazgo de Basterretxe” izeneko filma erakustiko da, 1928. urtean Barakaldon egindakoa.

Lube motor mitikoaren lasterketea



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Erakusketa hori oinarritzat harturik, beste ekimen batzuetarako esku emon gura da, arestian aitaturako helburuak lortzearen. Ekimenotako lehenengoa izango da “2.000 kilometro Lube” lasterketa mitikoa barritan egitea, 1959. urtean Bilbo-Malaga-Bilbo artean Barakaldoko motor marka horren propaganda egiteko egin zanaren modukoa.

Horretarako, bada, Lutxanako Sociedad Motociclista Lube alkartekoei Malagarantza urtengo dabe uztailaren 2an eta Iraupeneko Moto Mundiala inauguratuko dabe Albaceten. Lasterketa horretan parte hartu dabenak uztailaren 5ean itzuliko dira Enkarterrietako Museora, eguerdiko 12:30ak inguruan.

Egun horretan be Lube motorren lantegiari buruzko hitzaldia izango eta erakusketa gidatuak izango dira, lasterketan parte hartu daben motoak ikusteko aukera eta guzti, motorrok egun gzutian egongo dira-ta Museoaren kanpoaldean.

Argibide gehiagotarako: 94 650 44 88
(Javier Barrio, Enkarterrietako Museoko Zuzendaria)
www.enkarterrimuseoa.net



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Nota de prensa

MUSEO DE LAS ENCARTACIONES – JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

El Museo de las Encartaciones inaugura hoy una exposición histórica sobre Barakaldo

Bilbao, a 30 de junio de 2009. El Museo de Las Encartaciones de Abellaneda, propiedad de las Juntas Generales de Bizkaia, inaugura esta tarde la exposición “*Barakaldo. Egileen begirada - Barakaldo a través de sus autores*”, un recorrido histórico por la localidad fabril. La muestra, que permanecerá abierta hasta el 10 de enero del año próximo, incorpora libros, elementos etnográficos, cuadros, dibujos y piezas emblemáticas encontradas, inventadas o construidas en este municipio de la margen izquierda.

El eje de la muestra gira en torno al trabajo de Txeru García Izagirre titulado “Bibliografía sobre Barakaldo”, de tal manera que un importante número de obras escritas sobre Barakaldo servirán de reflejo de todos los periodos históricos y vaivenes sociales acontecidos en la anteiglesia a lo largo de los siglos.

El objetivo de la muestra es mostrar que Barakaldo tiene una historia que va más allá de la de su reciente pasado industrial. La exposición mostrará una localidad diferente, por la que han pasado y vivido personajes de toda índole, como artistas, inventores, arquitectos o soldados, además de trabajadores de la industria.

Las piezas expuestas pretenden reflejar la diversidad y variedad de los productos o inventos que tienen su origen en la localidad o que han sido fabricados gracias a la creatividad de lo baracaldeses. Entre lo que el visitante se podrá encontrar destacan, desde motocicletas de la mítica marca baracaldesa Lube hasta un proyector de cine inventado por un baracaldés, o el centro de control de la Térmica de Burceña.

Asimismo, los visitantes podrán realizar un viaje histórico a través de numerosos elementos etnográficos, restos del convento mercedario de Burceña, cuadros de carácter industrial, dibujos y planos de construcciones de edificios emblemáticos, piezas procedentes de iglesias baracaldesas, documentación antigua, cuadros, esculturas y fotografías realizadas por artistas del municipio. Otra de las sorpresas es la emisión de una película de 1928 rodada en Barakaldo que se titula “El Mayorazgo de Basterretxe”.

Carrera con la mítica moto Lube



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

La exposición pretende ser la base sobre la que realizar distintas actividades que incidan en los objetivos descritos. La primera actividad será la conmemoración de la mítica carrera “2.000 kilómetros Lube” que se celebró en 1959 entre Bilbao-Málaga-Bilbao con el fin de promocionar la marca de motos baracaldesa.

El jueves, 2 de julio, los miembros de la Sociedad Motociclista Lube de Lutxana partirán desde allí hacia Málaga e inaugurarán el Mundial de Motociclismo de resistencia en Albacete. Se prevé que los participantes en esta carrera vuelvan el día 5 de julio, en torno a las 12:30 horas, en el Museo de Las Encartaciones.

Ese mismo día habrá una charla sobre la fábrica de motos Lube, y una visita guiada a la exposición y a todas las motos que han realizado la carrera y que estarán expuestas todo el día en el jardín del Museo.

Más información: 94 650 44 88

(Javier Barrio, Director del Museo de las Encartaciones)

www.enkarterrimuseoa.net